

## LA CONSTRUCCIÓN EN EUSKADI Y NAVARRA RECUPERA LOS NIVELES DE ACTIVIDAD PREVIOS A LA PANDEMIA DE LA COVID-19

- En el segundo trimestre de 2021 la superficie visada en obra nueva y rehabilitación confirma la recuperación del sector; entre los meses de abril y junio se han visado 8.586.429 metros cuadrados, un 1,66% más que en el mismo periodo del 2019.
- Destaca el crecimiento en más de un 50% de la rehabilitación no residencial.

La construcción, al igual que muchos otros sectores, no ha sido ajena a los efectos provocados por la crisis sanitaria, social y económica generada por la Covid-19. Aun así, después de un año complicado, los datos del segundo trimestre de 2021 confirman la recuperación del sector, que vuelve prácticamente a los niveles de actividad previos a la pandemia. Euskadi y Navarra se suman a esta tendencia con 8.586.429 metros cuadrados visados entre abril y junio, un 1,66% más que en el mismo periodo del 2019.

Según el Consejo Superior de los Colegios de Arquitectos de España (CSCAE), los datos reflejan el buen ritmo y las buenas expectativas del sector alentadas, también, por la aprobación definitiva del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia por parte de la UE. Tal y como se ha advertido en anteriores ocasiones, la rehabilitación es el gran reto y puede ser el estímulo necesario para promover la 'ola de renovación' que precisa el parque edificado en materia de eficiencia energética, accesibilidad, funcionalidad y conservación. Junto a los fondos Next Generation, que serán el impulso definitivo la gran rehabilitación, la única que puede adaptar el parque construido a los retos actuales, modernizarlo y hacerlo más sostenible.

A diferencia de la obra nueva, el visado en rehabilitación registró, en 2020, una caída moderada y, desde que comenzó 2021, no ha dejado de aumentar. En Euskadi y Navarra, el aumento de la superficie visada para rehabilitación residencial y no residencial en el segundo trimestre del año ha sido exponencial. Los datos reflejan que en el primer trimestre de este año incrementó un 0,2% respecto al mismo periodo de 2019, y entre abril y junio el crecimiento ha sido del 23,92%, confirmando esta tendencia.

Igualmente, la superficie visada en rehabilitación de carácter residencial ha aumentado un 24,36% en el segundo trimestre en comparación con el mismo periodo de 2019. En total, se han visado 825.469 metros cuadrados, mientras que entre abril y junio del año anterior a la pandemia se visaron 663.795. En el caso de la superficie rehabilitada no residencial, los datos mejoran aún más, con un aumento del 23,57%, con 1,012.374 metros cuadrados visados, aunque esta actividad está determinada por operaciones de carácter puntual por lo que no sirven para marcar tendencias.

En cuanto a la superficie de obra nueva visada residencial y no residencial, los datos reflejan que se contiene la caída registrada en el primer trimestre del año (-17,58%) respecto al mismo periodo de 2019. Entre los meses de abril y junio, el retroceso es del 3,08%, lo que constata la recuperación global del sector.

La superficie visada de obra nueva con carácter residencial recupera, prácticamente, los niveles de 2019, aunque se mantiene un 2,52% por debajo de las cifras del segundo trimestre del año previo a la pandemia. Durante este periodo se han visado 4,93 millones de metros cuadrados. La superficie visada de obra nueva no residencial ha tendido a la estabilización entre abril y junio con el visado de 1,8 millones de metros cuadrado (-4,59% respecto al mismo periodo del año 2019).

## EUSKADIKO ETA NAFARROAKO ERAIKUNTZAK COVID-19AREN PANDEMIAREN AURREKO JARDUERA-MAILAK BERRESKURATU DITU

- 2021eko bigarren hiruhilekoan, obra berrian eta birgaitzean ikus-onetsitako azalerak sektorearen susperraldia berretsi du; apiriletik ekainera bitartean 8.586.429 metro koadro ikus-onetsi dira, 2019ko epe berean baino % 1,66 gehiago.
- Nabarmentzekoa da etxebizitzakoa ez den birgaikuntza % 50 baino gehiago hazi dela.

Bilbon, 2021eko uztailaren 26an. Eraikuntzak, beste sektore askok bezala, Covid-19ak sortutako osasun, gizarte eta ekonomia arloetako krisiaren ondorioak jasan ditu. Hala ere, urte zail baten ondoren, 2021eko bigarren hiruhilekoko datuek sektorearen susperraldia berresten dute, pandemiaren aurreko jarduera-mailetara itzultzen ari baita. Euskadik eta Nafarroak bat egin dute joera horrekin, apirila eta ekaina bitartean 8.586.429 metro koadro ikus-onetsi baitziren, 2019ko epe berean baino % 1,66 gehiago.

Espainiako Arkitektoen Elkargoen Kontseilu Nagusiaren (CSCAE) arabera, datuek erakusten dute sektoreak erritmo eta itxaropen onak dituela, eta EBk Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana behin betiko onartu izanak ere badu horretan zerikusia. Hainbat aldiz ohartarazi den bezala, erronka nagusia birgaitzea da, eta energia-eraginkortasunari, irisgarritasunari, funtzionaltasunari eta kontserbazioari dagokienez eraikitako parkeak behar duen 'berrikuntzaren olatua' sustatzeko beharrezko pizgarria izan daiteke. Birgaitze handiaren behin betiko bultzada izango diren Next Generation funtsekin batera, hori izango da eraikitako parkea egungo erronketara egokitu, modernizatu eta jasangarriagoa egin ahal izango duen bakarra.

Obra berrian ez bezala, birgaitzeko ikus-onespenak beherakada moderatua izan zuen 2020an, eta, 2021. urtea hasi zenetik, gora egin du etengabe. Euskadin eta Nafarroan, etxebizitzak eta bestelakoak birgaitzeko ikus-onetsitako azaleraren hazkundea esponentziala izan da urteko bigarren hiruhilekoan. Datuen arabera, aurtengo lehen hiruhilekoan % 0,2 igo zen 2019ko aldi berarekin alderatuta, eta apiriletik ekainera bitartean % 23,92 hazi da, joera hori berretsiz.

Era berean, etxebizitzen birgaitzetan ikus-onetsitako azalera % 24,36 handitu da bigarren hiruhilekoan, 2019ko aldi berarekin alderatuta. Guztira, 825.469 metro koadro ikus-onetsi dira, eta pandemiaren aurreko urteko apirila eta ekaina bitartean 663.795. Etxebizitzakoa ez den birgaitutako azaleraren kasuan, datuak are gehiago hobetu dira, % 23,57ko igoerarekin, ikus-onetsitako 1.012.374 metro koadrorekin, jarduera hori eragiketa puntualek zehazten duten arren. Beraz, ez dute joerarik markatzeko balio.

Etxebizitzak eta bestelakoak birgaitzeko ikus-onetsitako azalerari dagokionez, datuek erakusten dute 2019ko aldi berarekin alderatuta urteko lehen hiruhilekoan erregistratutako beherakada (-% 17,58) moteldu egin dela. Apirila eta ekaina bitartean, beherakada % 3,08koa izan da, eta horrek sektorearen susperraldi globala egiaztatzen du.

Etxebizitza erabilerarako obra berrian ikus-onetsitako azalerak 2019ko mailak berreskuratu ditu, baina pandemiaren aurreko urteko bigarren hiruhilekoan baino % 2,52 beherago dago oraindik. Aldi horretan, 4,93 milioi metro koadro ikus-onetsi dira. Etxebizitzakoa ez den obra berriaren ikus-onetsitako azalerak egonkortzera jo du apirila eta ekaina bitartean, 1,8 milioi metro koadro ikus-onetsiz (-% 4,59 2019ko aldi berarekin alderatuta).




## UDA IKASTAROA / CURSO DE VERANO

## ESTRATEGIAS DE DISEÑO CIRCULAR: CIUDADES, EDIFICIOS Y PRODUCTOS DE CICLOS CERRADOS




**Antolatzaileak - Organizadores:**

COAVN Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro / Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala Gipuzkoa; habic

**Laguntzaileak - Colaboradores:**

cristina enea FUNDAZIOA; Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco – Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila / Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

IRAILA / SEPTIEMBRE
13-14

Hizkuntza / Idioma: Castellano

+ INFO

La comisión de Sostenibilidad del COAVN Gipuzkoa y el HABIC, con la colaboración de Cristina Enea Fundazioa y el Gobierno Vasco han organizado el curso de verano Estrategias de diseño circular: ciudades, edificios y productos de ciclos cerrados para septiembre, en Donostia/San Sebastián. En este curso se abordarán los principios de la economía circular aplicados al ámbito de la edificación.

Se analizarán los entornos urbanos como metabolismos que gestionan flujos de materia y energía, pasando por la aplicación de las ideas de circularidad en los edificios y llegando hasta los principios del diseño de ciclo cerrado en productos y materiales. Para ello se ha reunido a ponentes que son referentes en la temática abordada por el curso.

El curso podrá seguirse de modo presencial u online. Además, las personas colegiadas tendrán un 20% de descuento en el precio de la matrícula

Gipuzkoako EHAEOren Jasangarritasun Batzordeak eta HABICek elkarlanean, Cristina Enea Fundazioaren eta Eusko Jaularitzaren laguntzarekin Estrategias de diseño circular: ciudades, edificios y productos de ciclos cerrados uda ikastaroa antolatu dute, irailean emango dena Donostian. Ikastaro honetan eraikuntzaren eremuan aplikatutako ekonomia zirkularraren printzipioak landuko dira.

Hiri-inguruneak materia eta energia-fluxuak kudeatzen dituzten metabolismo gisa aztertuko dira, eraikinetan zirkulartasun ideiak aplikatuz eta produktuetan eta materialetan ziklo itxiko diseinuaren printzipioetara iritsiz. Horretarako, gai honetan erreferenteak diren hizlariak bildu ditugu.

Ikastaro hau aurrez aurre edo online jarraitu ahal izango da, eta elkargokideek % 20aren deskontua izango dute matrikularen prezioan.

### PROFESORADO - IRAKASLEGOA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Iñaki Alonso Echeverría | Ana De la Puente | Gorane Ibarra González | Juana Otxoa-Errarte Goikoetxea |
| Juan Azcarate | Kaitlyn Dietz | Borja Izaola | Mónica Pedreira Lanchas |
| Goio Borge | Pablo García Astrain | Luis M. Jiménez Herrero | Pablo Van Den Bosch |
| Michael Braungart | María Gorostegi | Christine Lemaitre | Aitor Sáez de Cortazar Junguitu |






**Ayudas para Proyectos de Cooperación y Desarrollo**

**Lankidetza eta Garapenerako Proiektuentzako Laguntzak**

**Preoc Premeti 2021**

**OFERTA:**
PVP: 380+IVA
Precio COAVN: (-60%) 152+IVA

**ESKAINTZA:**
PSP: 380+BEZ
EHAEOren prezioa: (-%60) 152+BEZ




**IV Concurso de relatos UAPFE**

**UAPFEren IV. Ipuin Lehiaketa**



**LISTADOS DE CHEQUEO DE LOS CONTENIDOS DEL PROYECTO DE EDIFICACIÓN COAVN**

**ERAIKUNTZA PROIEKTUAREN EDUKIEN TXEKEO-ZERRENDAK EHAEO**

Es necesario introducir previamente clave y contraseña
Aldez aurretik gakoa eta pasahitza sartu behar dira




COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO NAVARRO, Responsable del tratamiento le informa conforme a lo previsto en el RGPD, recaba y trata sus datos de carácter personal aplicando las medidas técnicas y organizativas con la finalidad de gestionar la relación que le vincula con el Responsable, así como poder remitirle cualquier tipo de comunicación a través de los medios designados al efecto. Usted da su consentimiento para dicho tratamiento pudiendo ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, portabilidad y oposición dirigiéndose al Responsable con dirección Alda. Mazarredo 69, 1º, Bilbao,48009, BIZKAIA.

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAk, tratamenduaren arduradunak, jakinarazten dizu DBEOn ezarritakoaren arabera, izaera pertsonaleko zure datuak bildu eta tratatzen dituela, neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatuz, Arduradunarekin lotzen zaituen harremana kudeatzeko xedez, bai eta edozein komunikazio bidaltzeko ere, horretarako zehaztutako bideen bidez. Baimena ematen duzu tratamendu hori egin dadin. Eskubidea duzu datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, horien eramangarritasunerako eta aurka egiteko; horretarako, arduradunari idatzi behar diozu, helbide honetara: Mazarredo zumarkalea 69, 1. Bilbo, 48009, BIZKAIA.